

Mapatik ezabatutako herria eta errua

PEGGY FRANZ



Ezkerreko iragarkiak Times Beachen etxea berandu baino lehen erosteko deia egiten du, herriaren hondamena aurreikusiko balu bezala. Eskuinean, Times Beach gaur egun, sartzea debekatzen duen seinale eta guzti.

TIMES BEACH, MISSOURI (AEB), 1982KO AZAROAREN 10A. Ingurumena Babesteko Agentziaren (EPA) arabera, herria dioxinaz kutsatutako ehun udalerrien zerrendan zegoela jakinarazi zuen kazetari batek, eta 1.400 biztanleko udalean “udazken beltza” hasi zen. Abenduaren 3an agentziako hainbat teknikari lurzoruan laginak hartzen hasi ziren. Handik bi egunera, herriak inoizko uholde larrienak jasan zituen eta herritar asko ebakuatu zituzten. Abenduaren 23an, biztanleak etxera itzultzen hasi zirenean, EPAk laginen emaitzak eman zituen: dioxina tasa onargarritzat jotzen zena baino 300 aldiz handiagoa zen. Orduan hasi ziren gai toxikoa herritarren gaixotasun tasa izugarriarekin erlazionatzen. Gaia komunikabideen azaletara iritsi zen, eta herrian izua zabaldu. 1983ko otsailean AEBetako gobernuak Times Beach erostea erabaki zuen, 30 milioi dolarren truke. Biztanle guztiak ostatu eman, kalte-ordainak banatu, herria suntsitu eta kutsatutako lurak erraustu zituztela esan zuten. Herria desagerrarazi zuten, errudunengana eramaten zuten frogak guztiak bezala.

J. F. Quennik 1901ean sortu zuen Monsanto enpresa ezaguna Saint Louisen (Missouri). Industria kimikoaren sektorean berehala nabarmendu zen Monsanto, eta 1925ean enpresako zuzendari eta langileentzat udaldi gune bat sortu zuten hiritik kilometro gutxira, Meramec ibaiaren ertzean. Apurka, gunea biztanle iraunkorrek

erakartzen hasi zen eta, hala, Times Beach benetako udalerri bihurtu zen.

1970eko hamarkadaren hasieran hautsak hartu zituen Times Beacheko asfaltatu gabeko kaleak, eta udalak Bliss Waste Oil Company enpresarengana jo zuen konponbide bila. Enpresak olio hondakinak berreskuratzen zituen, eta kaleak hondakin horiez egin-dako lokatzez estaltzea proposatu zuen.

Hildako animaliak nonahi agertzen hasi ziren, eta herritarrek EPAk salatu arren, agentziak ez zuen ezertxo ere egin. Gaixotasunen Kontrolerako Zentroak 1971n egindako azterketaren emaitzen arabera, PCB, 2,4,5-T herbizida eta dioxina gai toxikoen tasak asaldagarriak ziren udako paradisu izandakoan. Baina EPAk afera isilean gordetzea lortu zuen “udazken beltzean” lehertu zen arte.

Hainbat testigantzek Bliss Wastek zabalduetako hondakinak Monsantoetik zetozela adierazi arren, bi enpresen arteko erlazioa frogatzen zuten dokumentu bakar bat ere ez zen lortu. 1983an Reagan administrazioak EPAren zuzendari Anne Burfordi Times Beach txostena “izozteko” eskatu ziola azaleratu zen. Burfordek dimititu egin zuen, baina Monsanto ez zen larritu: bere administrazio kontseiluko kide izandako William Ruckelshaus izendatu zuen EPAk ordezeko. ■



Arrastoak

Auschwitzeko argazkilaria hil da

AUSCHWITZ MUSEUM



WILHEM BRASSE (1917-2012) ez zen judua, austriar-poloniar jatorria zuen, baina nazien aurkako jarrerak Auschwitzera eramane zuten Bigarren Mundu Gerran. Gerra aurretik argazkilaria aritu zenez, kontzentrazio esparruko arduradunek presoan lanaren eta medikuntza esperimen-

tuen argazkiak ateratzeko eta artxi-boetarako erretratuak egiteko agindu zitoten 3.444. presoari. Bost urtetan 40.000-50.000 argazki egin zituen, eta gehienak galdu diren arren, gorde direnak holokaustoaren testigantza garbientakoa dira. Joan den urriaren 23an zendu zen, 94 urte zituela. ■